

FORU DEKRETU BATEN PROIEKTUA PRESTATU AURREKO KONTSULTA PUBLIKOAREN GAINEKO TXOSTENA. FORU DEKRETU HORREK IRAKASLEEN KIDEGOETAKO LANPOSTUAK NOLA BETE ARAUTZEN DUEN APIRILAREN 30EKO 37/2014 FORU DEKRETUA ALDATZEN DU.

2020ko azaroaren 23an argitaratu zen aipatutako aurretiko kontsulta. Bederatzi ekarpen egin zaizkio 2020ko abenduaren 17ra bitartean.

Kontsulta hauek jaso dira:

1. E.E.G.-k, S.N.B.-k, M.P.M.S.-k eta I.S.E.-k lau ekarpen aurkeztu dituzte lanpostuaren erreserba bukatzeari dagokionez (erreserba hori foru dekretuaren 3.4 artikuluan araututa dago). Ekarpena aurkeztu dutenek agindu hori ezabatzea iradokitzen dute Hezkuntza Departamentuaren mendeko Irakasleentzako Laguntza Zentroetan eta Baliabide Zentroetan zerbitzu-eginkizunetako lanpostuan egoteko denbora luzatu beharko litzatekeelako.

Behin betiko destinoa galtzen da zerbitzu-eginkizunen araubidean 5 urteko egonaldia egin ondoren eta jarraian bost urterako bigarren aldi bat zerbitzu-eginkizunetan eskuratu ondoren. Horrek esan nahi du bere destinetik kanpo gutxienez 6 urtez egon dela eta segur aski 10 urtez. Gure ustez, aski denbora da behin betiko lanpostuaren erreserba bukatutzat emateko. Era berean, gogoan izatekoa da zerbitzu-eginkizun hauetan parte hartzea borondatezkoa dela eta errespetatu behar dela gainerako langileek lanpostu horiek eskuratzeko duten eskubidea; izan ere, lanpostu horien titularrek urte batzuk daramatzate lanpostu horiek bete gabe. Horregatik guztiagatik, ezin da ekarpen hau onartu.

Azkenik, foru dekretuan jada aurreikusita dago arrazoi horregatik behin betiko destinoa galdu dutenek lehentasunezko eskubidea izanen dutela lanpostua herrian edo eskualdean eskuratzeko prozesuan parte hartzeko.

2. F.B.P.-k egindako ekarpena, helduen irakaskuntzako eskakizuna duten behin betiko lanpostuak ezartzeari buruz.

Eskakizunak sortzea Hezkuntzako kontseilariak martxoaren 11n emandako 32/2013 Foru Aginduan araututa dago. Foru agindu horren bidez irakasleek frogatu ditzaketan berriazko

eskakizunak zehaztu eta hura egiaztatzeko prozedura ezartzen da. Hartara, eskaera hau ez dagokio apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua aldatzeari. Beraz, ez da onartu.

3. B.P.A.-k, beste hamabost pertsonaren izenean eta haien ordezkari, egin duen ekarpena, ingelesezko espezialitatea duten maisu eta maistra funtzionarioek sarbidea izan dezaten Hizkuntzak Ikasteko Programa (HIP) ezarria duten ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako lanpostuetan. Adierazi dute ezin dituztela beren espezialitateko lanpostuak behin betiko eskuratu.

Enplegu eskaintza publikoak antolatzen dira kontuan izanik kidegoak, espezialitateak eta lanpostu horiek zein hizkuntzatan eskaintzen diren, betiere hezkuntza sistemaren beharren arabera. Hautapen prozesu bat gainditu dutenei uzten bazaie lehen destinoa lortzen kidegoan sartzeko erabili zuten espezialitate edo hizkuntza ez den beste batean, ondorio negatiboak bi izanen lirateke: batetik, ez litzuke sistemaren beharrak asebeteko -bestela planifikatu ziren- eta, bestetik, beste espezialitate batzuetako langile funtzionarioei kalte eraginen lieke -lanpostu gutxiago izanen litzukete kidegoan sartzeko-, lehian sartuko bailirateke espezialitate horrekin sartu ez diren funtzionarioekin, haiek, espezialitatearen titular direnek, eskubide hobea izan behar baitute berei dagozkien lanpostuetan.

Ondorio negatibo horiek areagotuko lirateke ekarpen honekin mahai gainean jarri den aukera ingelesezko espezialitatea duten maisu-maistren kidegoko irakasleei bakarrik aplikatzea ezinezkoa izanen litzatekeelako. Izan ere, beste espezialitate batzuetakoei ere aplikatu beharko litzaietxe eta, orobat, sortutako arazoa irakaskuntzako beste kidego eta espezialitate batzuetara hedatuko litzateke.

4. STEILASen ekarpenak:

a. 2. artikuluari dagokionez, ekarpen horietan iradokitzen da deialdietan eskaturiko titulazioak eta eskakizunak deialdiaren xede den proiektuarekin lotu behar direla eta proiektua aurkezteko gutxienez hilabeteko epea eman behar dela.

2.3.4 artikulua aldatzen da, halako moduz non deialdietan aurreikusi beharko baitira parte-hartzeko betebeharrak batzuk, zeinek, logikoki, bat etorri beharko baitute deialdi haien xede diren proiektu edo programekin eta, orobat, eskakizun jakin bat eskatzeko aukera ere kontuan hartu beharko baitute.

Proiektuak aurkezteko epea handitzeari dagokionez, alderdi hori ez dago aurreikusita 37/2014 Foru Dekretuan eta ez dirudi egokia denik deialdi guztietarako epe orokor eta bakar bat ezartzea, epeak bat baino gehiago izan baitaitezke, antolaketa-arrazoiengatik eta/edo proiektuen eta programen arteko alde adierazgarriengatik.

b. 6. artikuluari dagokionez, iradokitzen dute, behin-behineko destinoan 4 urte igaro ondoren, langile funtzionario horiek edozein hizkuntza edo espezialitatetan parte hartzeko aukera izan behar dutela, zeinetarako dauden gaituta haietan.

Proposamen hau ez da onartu aurreko 3. puntuan azaldutako arrazoiengatik.

c. Lehen xedapen iragankorrari dagokionez, iradokitzen dute orain dagoen bezala uztea eta zabaldu behar bada, justifikatzea.

Lehen xedapen iragankorra foru dekretuan idatzita dagoen bezala uzten bada, Hizkuntzak Ikasteko Programa (IIP) arriskuan jarriko litzateke, atzerriko hizkuntzetan aski ezagutza duten langilerik ez baita.

Irakasle kidegoetan nola sartu arautzen duen estatuko araudiak uzten ez duen bitartean sarrera hori espezialitate batean egitea eta, kasua bada, atzerriko hizkuntza jakin batean, ezin da sistema hizkuntza-ezagutzen jabe den langileekin hornitu. Beraz, araudi hori aldatzen ez den bitartean indarrean segituko du xedapen iragankorrak.

Xedapen iragankor horretako 3. apartatuari dagokionez, B2 tituluarekin baliokidea den hizkuntza-ezagutzaren egiaztapenak izaera iragankorra galduko du (I, F edo ALE) eta, ondorioz, behin betiko indarraldia izanen du, nahiz eta hizkuntza-ezagutzaren goiko mailekin alderatuta izaera subsidiarioa izanen duen.

5. AFAPNAREN EKARPENAK:

a. Alegazioaren izenburuan "6. artikuluko 2. apartatuan azaldutako indarraldia mantentzea" jartzen badu ere, aurkeztu duten testutik ondorioztatzen da AFAPNAK hura aldatu nahi duela eta behin-behineko lanpostuak dituzten langileei utzi behar zaiela beren lehen behin betiko destinoa beste espezialitate batean eskuratzen, betiere horretarako gaituta badaude.

Proposamen hau ez da onartu aurreko 3. puntuan azaldutako arrazoiengatik.

b. Espezialitate batean baino gehiagotan dagoen behin-behinekotasun handiari erantzutea.

Hezkuntza Departamentua etengabe ari da gai hau aztertzen eta, horrenbestez, ekarpen-egilearekin bat egiten du behin-behinekotasuna murriztu behar dela ikastetxeetako plantillei ahalik eta egonkortasun handiena eman behar zaiela uste baitu. Foru dekretuak, jatorrizko idazketan, jadanik jasotzen ditu lanpostuak hornitzeko araudiak helburu hori lortzeko dituen neurriak, baina, hirugarren puntuan azaldu den bezala, beste funtzionarioek dituzten eskubideak gordetzeak ez du bestelako neurririk hartzen uzten.

c. Zerbitzu-eginkizunen iraupena handitzea 6 urtez beherako semea edo alaba zaintzeko (4. artikulua).

Ez da ekarpen hau onartzen. Badira lana eta familiako eginkizunak batera eramateko beste neurri batzuk, hala nola doako eskolatzea hiru urtetik hasita eta zerbitzuaren beharren mende ez dagoen lanaldiaren murrizketa adingabeak hamabi urte betetzen dituen arte.

d. Funtzionarioaren praktikaldiaren iraupena murriztea eta kontratazio-denbora kontuan hartzea. Amatasunagatiko bajei dagokienez, ez behartzea hurrengo ikasturtean luzapena hartzea erabaki horrek lekualdatze lehiaketan dituen ondorioak direla eta.

Praktikaldiaren iraupenari dagokionez, ekarpena ez da onartzen, estatuko araudian araututakoa gorabehera.

Bestalde, kontratazio administratiboaren araubidean emandako zerbitzuak ezin dira praktiken ordezkotzat onartu, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Errege dekretu hori Nafarroan nahitaez aplikatu behar da Nafarroak irakasleen kidegoetan sartzeko egiten dituen hautapen prozesuetako deialdietan, zeinak nazio-izaera baitute.

Amatasunagatiko baja-egoerei (eta aparteko beste inguruabarrei) dagokienez, 6. artikulua aldatu da. Izan ere, praktikaldien luzapenak orain arte zituen ondorioak saihesteko, praktiketan dauden funtzionario guztiak parte hartzea behartzen zituen, baita lekualdatze lehiaketan praktikaldiak luzatu zitzaizkienei ere. Praktikaldi horiek, kasuan kasu, lortutako destinoan egiten lirateke hurrengo ikasturtean eta destino hori karrerako funtzionario modura behin betiko bihurtuko litzateke, baldin eta praktikaldia gainditzen bada.

e. 11. artikulua dagoen-dagoenean uztea, eta lehen xedapen iragankorra errebisatzea, irakasleek titulazioa lor dezaten. B2 eta C1 tituluetan prestakuntza jaso eta titulu horiek lortzeko liberazioak eskatzen dira.

Egiaztagiri iragankorraren indarraldia luzatu da 2023-2024 ikasturtera arte, eta 11. artikulua errebisatu da egiaztagiriak eta titulazioak hizkuntza-ezagutzaren mailara egokitzeko. Kontuan izan behar da B2ren pareko maila egiaztatzeko indarraldia behin betikoa izatera igaro dela, nahiz eta hizkuntza-ezagutzaren goiko mailekin alderatuta izaera subsidiarioa izanen duen.

Era berean, uste da titulazioa lortzeko aski denbora izan dela, hots, B2 eta C1 tituluetan prestakuntza jaso eta titulu horiek lortzeko liberazioak baimentzeko.

f. Funtzionarioendako ekitaldi publikoak aldatu eta aplikazio informatiko baten bidez egitea, lanpostuak telematikoki esleitzearen bidez.

Ez da onartzen, ez baita 37/2014 Foru Dekretuaren bidez erregulatzen. Hala ere, gaur egun aplikazio informatiko bat prestatzen ari da funtzionarioek ikasturte bakoitzean behin-behineko destinoak hauta ditzaten.

Iruñean, 2021eko otsailaren 24an.

HEZKUNTZA BALIABIDEEN ZUZENDARI NAGUSIA

(Sinadura jatorrizkoan dago)

Begoña Unzué Vela